

## Haur aktorea

36.1.- Entzun 36. atala, eta hautatu erantzun egokia:

### 1. Zergatik zuen Tasiok barre txikia aurpegian?

- a) Kevini adarra jotzen ari zitzaiolako.
- b) Antxonekin bizitako oroitzapen bat etorri zaiolako burura.
- c) Games of Thrones telesailean atera zelako.

### 2. Zergatik doa Kevin traje eta kaskoaren bila?

- a) Aspertu egiten delako zine-kontuekin.
- b) Ez dituelako topatzen.
- c) Zineaz ezer ez dakielako.

### 3. Nor aurkeztu zen Games of Thrones telesailaren castingera?

- a) Kevin.
- b) Tasio.
- c) Inor ez.

### 4. Nolako jendea eskatzen zen telesaileko castingean?

- a) 200 bat gizon heldu.
- b) Haurrak eta gizon gihartsuak.
- c) Haur bat eta 200 bat gizonezko.

### 5. Zertaz konturatu zen Tasio Antxon ezagutu zuenean?

- a) Telesail zaharrak ez zitzaizkiola batere gustatzen.
- b) Erregeen eraztuna soilik zuela gustuko.
- c) Telesail zaharren amorratua zela.

### 6. Antxoni Games of Thronesko atal batean parte hartu zuela esatean, zer gertatu zen?

- a) Sinetsi eta etxera joan ziren telesaila ikustera.
- b) Ez zuela sinetsi eta horretaz ez zuela ezer jakin nahi esan zion etxean.
- c) Ez zuela sinetsi eta etxera joan zirela, benetan ari ote zen ikustera.

## 36. atala: Bakarka

36.2.- Games of Thrones, Erdi Aroan girotutako fantasiako telesaila, Euskal Herrian ari dira grabatzen egunotan. Behean duzun irudi hau Bardeetan grabatutakoa da.



Pentsa ezazu castingerako epaimahaian zaudela. Zein baldintza eskatuko zenizkieke figuranteei goikoa bezalako eszena bat grabatzeko? Proposatatu gutxienez hiru baldintza. Nori ez zenioke utziko? Eman gutxienez pare bat debeku.

Adibidez:

Telesailean parte hartzeko beharrezkoa izango da:

1. *Zaldiz ibiltzen jakitea*
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.

Debekuak:

- 1.
- 2.
3. ...



36. atala: Bakarka

## Transkripzioa (03:37)

K- Eta? Irribarre hori?

T- Ze irribarre?

K- Barre txikia zenuen aurpegian.

T- Keba, keba.

K- Baietz bada, benga, esan, zertan ari zinen pentsatzen?

T- Ezertan ere ez.

K- Benga, esaidazu, bueno, esateko modukoa bada, behintzat.

T- Eta zer huke ez esateko modukoa, bada?

K- Hombre, bada, honezkero jakin beharko zenuke: politika-kontuak, euskara-zuzenketak edota zure zine matraka horietakoa bada, hobe ez ezer esatea.

T- Ez duk zinea, baina bueno, badik zerikusia.

K- Bada, orduan ez dut jakin nahi.

T- Berandu, hik atera duk gaia eta orain... Nora hoa?

K- Espaziora ateratzeko trajea eta kaskoaren bila.

T- Ez ezak txorakeriarik egin, e?

K- Benetan zine-kontuekin hasiko zarela berriro? Zuri barregura emango dizu, baina niretzat oso aspergarria da.

T- Eseri hadi, Johnson, hau gustatuko zaik-eta.

T- Game of Thrones telesaileko atal batean ateratzen nauk.

K- Eta horrek hainbeste grazia egiten dizu?

T- Hi jaio aurreko kontua duk, independentzia aurreko urteetakoa. Telesail mitiko hura grabatzera etorri hituan Euskal Herrira.

Bila ezak Hal-ionen, seguru garai hartako albisteren bat badagoela.

K- Kontakizuna nahiko astun hasi da bada...

T- Bada, kontua duk nire amak baziala obsesio bat: ni haur-aktore horietakoa bihurtzea. Iragarki eta antolatzen zen edozein *castingera* eramaten ninduan.

K- Eta zuri, gustatzen zitzaizun?

T- Iragarkiena ez, baina *Game of Thrones* casting hura ezberdina izan huan, e? Gizonezkoak soilik behar zizkiaten Euskal Herrian grabatu behar zituzten eszenetan.

K- Zu haur bat zinela esan didazu lehen.

T- Bueno, haur bat ere behar ziatelako, baina irudika ezak, e? ni, 20-50 urte bitarteko gorputz gihartsudun 200 gizonen artean...

K- Ordurako jada bazenekien zu...

T- Nik ez nekian ezer, nekien gauza bakarra huan saltsa hartan zoriontsu nintzela.

K- Eta hori al da dena?

T- Keba, ez nian horregatik irribarre egiten.

K- Bada, hasi laburtzen, zortzietako informatiboa iritsi aurretik amaitu behar dugu-eta!

T- Antxon telesail zaharren oso zalea duk. Elkar ezagutu genuen gauean esan zidakean lehendabiziko gauza zera izan huan: *Gustatzen al zaizu "Game of Thrones"?*

K- Bada, nik, egia esan, bat osorik ez dut ikusi... Niri dragoiak, Erdi Aroko imitazio horiek, hobbitak, gollum-a...

T- *Erregeen eraztunarekin* ari haiz nahasten.

K- Horiek denak berdinak dira niretzako.

T- Aitortu behar diat niretzat ere hala duala, baina kontua duk eta horregatik nian, hala bahuan, irribarre bat ezpainetan.

K- Bai, bai, hala zen.

T- Antxon taberna zulo batean ezagutu nianean, esan niola *Game of Thrones*ko atal batean figurazioa egin nuela haurtzaroan.

K- Eta?

T- Bada, berak sinistu ez.

K- Eta?

T- Etxera gonbidatu nuela egiatan ari nintzela konprobatzera.

K- Eta?

T- Eta etorri zela etxera, eta hortik aurrera gertatutakoak oroitzeak, bada, bueno bada, horrek marraztu didala irribarre hori aurpegian.

## Erantzunak

36.1.- 1-b / 2-a / 3-b / 4-c / 5-c / 6-c